



GIZA ESKUDIBEAK
IMANOL TELLERIA

Jaun hori:

Honekin batera Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak 2018ko ekainaren 19ko bilkuran, onartutako Erakunde Adierazpenari buruzko egiaztagiri hau bidali dizut, jarraian zehazten den gaiaren ingurukoa dena:

ERAKUNDE ADIERAZPENA, RIF-EKO HERRI MUGIMENDUARI BABESA ETA ELKARTASUNA ADIERAZTEKOA.

Dagozkion ondorioak izan ditzan jakinarazi dizut.

Donostian, 2018ko ekainaren 28an.

Estimado Sr.:

Adjunto remito certificación relativa a la Declaración Institucional aprobada, por la Junta de Portavoces del Ayuntamiento de San Sebastián el pasado 19 de junio de 2018, referida a:

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL DE APOYO Y SOLIDARIDAD CON EL MOVIMIENTO POPULAR DEL RIF.

Lo que le comunico a los efectos procedentes.

En San Sebastián, a 28 de junio de 2018.

**DONOSTIAKO UDALEKO BITARTEKO IDAZKARI NAGUSIA /
EL SECRETARIO GENERAL EN FUNCIONES DEL AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN**



Donostiako Udala
Ayuntamiento de San Sebastián

Iñaki Txintxurreta
Idazkari Nagusia
Secretario General



Don JUAN CARLOS ETXEZARRETA VILLALUENGA Jn.

Donostiako Udaleko Idazkari Nagusia naizen honek
Secretario General del Ayuntamiento de San Sebastián

Neuk ziurtatua:
Certifico:

Donostiako Udaleko Bozeramaileen Batzordeak, 2018ko ekainaren 19an izan zuen ohiko bileran, erakunde adierazpen hau onartu zuen (aurreneko, bigarren eta zazpigarren puntuak, aho batez, eta hirugarrena, laugarrena, bostgarrena eta seigarrena, gehiengoz):

Que la Junta de Portavoces del Excmo. Ayuntamiento de San Sebastián, en sesión ordinaria celebrada el 19 de junio de 2018, aprobó, la siguiente Declaración Institucional (por unanimidad el 1.er, 2º y 7º punto y por mayoría el 3.er, 4º, 5º y 6º punto):

“Rifeko herria egoera larrian dago, Marokoko agintariak giza eskubideak urratzen ari direlako eta herria zapalduta eta abandonatuta dagoelako.

“El pueblo rifeño vive una grave situación de vulneración de derechos humanos, opresión y abandono por parte de las autoridades marroquíes.

Rifeko herriak amazigh nortasuna errebindikatu izan du Espainiak eta Frantziak 20ko hamarkadan gauzatutako kolonizazioaren aurrean eta Marokoko erresumako agintarien kontra 50eko hamarkadako bigarren erditik aurrera. Horrek zigor ekonomikoa ekarri dio eskualdeari azkeneko hamarkadetan, eta bidegabekeria, marjinazio eta injustizia sentsazioa areagotu egin da, azkeneko hildabeteetan leherketa soziala gertatu den arte.


La reivindicación de su identidad amazigh, ante la colonización de España y Francia en los años 20 y contra las autoridades del reino de Marruecos a partir de la segunda mitad de los años 50, han provocado, en las últimas décadas, un castigo económico a la región alimentando una sensación de agravio, marginación e injusticia permanente que ha explotado socialmente en los últimos meses.

Duela urtebete Mohsin Fikri kalez kaleko arrain saltzailea hil zenetik (Alhucemas-eko zenbait polizia gizonak konfiskatu eta zabor bilketako kamioi batera jaurtitako salgaiak berreskuratu nahian zebilela kamioiak txikituta) protestak gertatu dira Rif osoan, baina Marokoko Estatuak zapaldu egin ditu. Protestak baketsuak izan arren, polizia karga batek beste hildako bat eragin zuen uztailaren 20an Alhucemasen: Imad El Attabi.

Tras la muerte del vendedor de pescado ambulante Mohsin Fikri hace un año (triturado por un camión de la basura cuando intentaba recuperar la mercancía que le habían decomisado varios agentes de la policía de Alhucemas, los cuales arrojaron su pescado a dicho camión), se iniciaron una serie de protestas por todo el Rif que han sido reprimidas por el Estado marroquí. A pesar del carácter pacífico de las protestas, el 20 de julio pasado una carga policial provocaba otra víctima mortal en Alhucemas, Imad El Attabi.

Protestak baketsuak izan dira beti, eta errebindikazioak sozialak eta ekonomikoak; Rifeko herriak, mendeetan jasan duen abandonu eta marjinazioa dela eta, ospitaleak, eskolak, azpiegiturak, lana eta umiliazioari amaiera ematea eskatzen baititu.

Las protestas han sido siempre pacíficas, y las reivindicaciones de carácter social y económico; ante el secular abandono y marginación que sufre la población rifeña, sus demandas han sido hospitales, escuelas, infraestructuras, creación del empleo y el cese de la humillación como lema general.





Baina Marokoko erregimenak eskari oinarrizko eta demokratiko horien aurrean eman duen erantzuna hau izan da: eremua militarizatzea, manifestazioak debekatzeko, kazetariak atxilotzea, adierazpen askatasuna bertan behera uztea, eta 400 pertsonatik gora atxilotzea (batzuk adingabeak). Giza eskubideen defentsarako elkarteek jakitera eman dutenez, Marokok tortura erabili du aktibisten konfesioak lortu eta haiek kartzelaratzeko, batzuk 20 urtera arteko zigorrakin.

Rifeko herriak jasaten duen errepresioak eraginda, bertako gazte askok Europara iristeko saiakera egiten dute, segurtasun eta etorkizun bila.

Heba Morayef Amnistia Internacionaleko Ikerkuntzako zuzendaria da Afrika Iparralderako, eta hark adierazi duenez, Rifeko manifestazioek errepresio etengabea jasan dute azkeneko hilabeteetan. Hebak Nasser Zefzafi eta era baketsuan protestatu duten edo Interneten manifestazioen berri eman duten gainerako atxilotuak berehala askatzeko eskatu die Marokoko agintariei, Amnistia Internacionalen iritzi kontzientzia presoak baitira.

Horregatik guztiagatik, Donostiako Udalaren eta hiriaren beraren giza eskubideekiko konpromisoa kontuan hartuta, Donostiako Udalbatzak honako erakunde adierazpen hau onartzen du:

ERAKUNDE ADIERAZPENA

1.-Donostiako Udalbatzak aintzat hartzen du eta harrera egiten dio herri mugimenduen izaera baketsuari, eta babesa ematen die Rifeko herri mugimenduaren errebindikazioei, haien helburua baita garapen ekonomiko, sozial eta kulturala bultzatzea eta eskualdean ospitaleak eta unibertsitateak eraikitzea.

2.-Donostiako Udalbatzak tartean sartuta dauden pertsona, talde eta instituzio guztiakin elkarrizketa ahalbidetzeko eskatzen dio Marokoko Gobernuari, Rifeko herritarren eskakizun sozial, politiko eta kulturei ekin eta konponbide bat emateko.

La respuesta del régimen marroquí ante estas demandas básicas y democráticas ha sido la militarización de la zona, la prohibición de cualquier tipo de manifestación, la detención de periodistas, la supresión de la libertad de expresión y la detención de más de 400 personas, entre ellas menores de edad. Asociaciones de defensa de derechos humanos han informado del uso de la tortura para conseguir confesiones y del encarcelamiento de activistas, algunos de ellos con penas de hasta veinte años de prisión.

La represión que padece la población rifeña está provocando que muchos jóvenes del Rif traten de llegar a Europa en búsqueda de seguridad y futuro.



Heba Morayef, directora de Investigación de Amnistía Internacional para el Norte de África, ha declarado que la represión de los manifestantes del Rif ha sido incesante en los últimos meses, y ha pedido a las autoridades marroquíes la inmediata liberación de Nasser Zefzafi y de las demás personas detenidas por protestar pacíficamente o por informar sobre las manifestaciones en Internet. Al considera que son presos y presas de conciencia.

Por todo ello, teniendo en cuenta el compromiso del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián y de la propia ciudad con respecto a los derechos humanos, el Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián aprueba la siguiente declaración institucional:

DECLARACIÓN INSTITUCIONAL

1.-El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián reconoce y saluda el carácter pacífico de los movimientos populares, y apoya las reivindicaciones del movimiento popular del Rif, que buscan favorecer el desarrollo económico, social y cultural, así como la construcción de hospitales y universidades en la región.

2.-El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián solicita al Gobierno de Marruecos que propicie el diálogo con todas las personas, grupos e instituciones implicadas para abordar y dar una solución a las demandas sociales, políticas y culturales de la ciudadanía del Rif.





3.- Donostiako Udalbatzak eskualdeko premia larriei erantzuteko eskatzen dio Marokoko Gobernuari, hezkuntza, ekonomia eta gizartearen arloetan inbertsio plan adierazgarri bat eginda.

3.-El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián solicita al Gobierno de Marruecos que responda a las necesidades urgentes de la región con un plan significativo de inversiones en el ámbito educativo, económico y social.

4.- Donostiako Udalbatzak Rifeko eskualdean gertatzen ari den giza eskubideen etengabeko urraketa salatzen du, eta Mohcin Fikriren heriotzaren nondik norakoak argitzeko ikerkuntza zehatz bat egiteko eskatzen du.

4.-El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián denuncia la continua violación de derechos humanos en la región del Rif y solicita una investigación real y exhaustiva en torno a las circunstancias que rodearon la muerte de Mohcin Fikri.

5.- Donostiako Udalbatzak protesten izaera baketsua azpimarratzen du eta errepresioari amaiera emateko eskatzen du, bai eta Nasser Zafzafi eta Rifeko eskualdean (bereziki Alhucemasen) kartzelaturako aktibistak askatzeko ere.

5.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián subraya el carácter pacífico de las protestas y solicita el cese de la represión, así como la libertad de Nasser Zafzafi y de los activistas presos encarcelados en la región del Rif, principalmente en Alhucemas.

6.- Donostiako Udalbatzak 1958ko dekretua baliogabetzeko eskatzen du; hots, Marokok Rifeko eskualdea "zona militarizatu" izendatzeko onartutakoa.

6.- El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián solicita la anulación del decreto de 1958 por el cual Marruecos considera "zona militarizada" la región del Rif.

7.- Donostiako Udalbatzak agintzen du Erakunde Adierazpen honetan onartutako puntuak Eusko Jaurlaritzako giza eskubideen arloko arduradunei eta Marokoko enbaxadari helaraziko dizkiela". =====

7.-El Pleno del Ayuntamiento de Donostia / San Sebastián se compromete a enviar los puntos acordados en esta Declaración Institucional a los responsables en materia de derechos humanos del Gobierno Vasco así como a la embajada marroquí". =====

Eta, horrela jasota geratzeko eta dagozkion ondorioak izan ditzan, Alkatezak agindu eta ontzat emanik, egiaztagiri hau egin dut, Donostian, 2018ko ekainaren 22an.

Y, para que así conste y surta los efectos procedentes, expido, firmo y sello esta certificación visada por la Alcaldía y de su orden en la ciudad de San Sebastián, a 22 de junio de 2018.

IDAZKARI NAGUSIA – EL SECRETARIO GENERAL



Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga

ALKATEAK O. E. -
V. B. ° DEL ALCALDE: